

BEZEROEKIKO HARREMANA

Gure Gaztepark proiektua arrakastatsua izan dadin, ezinbestekoa da bezeroak izatea. Gainera, bezero horiek zaindu egin beharko ditugu haiek gurekiko leialtasun bat sortzeko, horrela, gure zerbitzua denboraldi luzez kontsumitzeko. Arlo honetan gure helburua lortzeko, hainbat teknika eta baliabide erabili beharko ditugu.

Gure enpresa mota eta merkatu segmentua aztertuz, erabaki dugu bezeroekiko harremana konfiantzazkoa eta gertukoa izango dela. Kontuan hartzen badugu, gure enpresak zerbitzu bat eskaintzen duela, eta zerbitzu hori guk eskainitako eraikin batean ematen dela eta denbora ororen bezeroekin harremanetan egongo garela, guk dugun jarrera haiekiko gertukoa, abegikoa eta atsegina izan behar du beti. Horrez gain, merkatu segmentuak bezeroekiko harremanean eragina duenez, argi dago guk emango diegun giroa gazte-giroa izango dela. Lehen aipatutako ingurumena lortu ahal izateko, lan handia egingo dugu eta gure proposak iruditzen zaizkigun baliabideak erabiliko ditugu.

Hasteko, aisialdian adituak diren langileak kontratatuko ditugu, gazteak gustuko duten giro bat emanaz, eremu apropos batean daudela sentiarazteko eta era berean haiek eroso sentiarazteko. Ildo beretik, gazteekin esperientzia duten pertsonak kontratatuz, gure bezeroak ikastaroetan eta ekintzetan parte hartu nahi izango dute, monitoreekin harremana estua izango delako eta adiskidetasuna sortu delako haien artean. Ildo beretik, gure bezeroek duda, kexa edo iradokizunik izanez gero, guk haiei modu eroso batean erantzun ahal izateko, web gune bat sortuko dugu, Gazte-parkeko ekintza eta eremu guztien informazioa jarriz, bezeroek dudak jartzeko eremu batez gain. Hala ere, gure eraikinean gure lanean aditua den norbait egongo da, norbaitek hara joan nahiz gero zuzenki galdetzeraz edota telefonoz dudak argi nahi dituztenentzat. Horrek, gure informazioa eskuratzeko erraztasuna eta erotasuna ematen du, bezero guztiak guregana iritsi dezaten.

Bestalde, gure beste helburu bat bezeroak gurekiko leialtasuna sortzean datza. Hau lortzeko, gure bezeroentzat, hau da, gazteentzat erakargarriak diren eskaintzak emango dizkiegu; ekonomikoki zein, ekintzei dagozkionak. Batetik, gure zerbitzua eskuarki kontsumitzen dutenei eskaintza bereziak eskainiko dizkiegu; esaterako, gure sarrerak ekonomikoki gazteentzat eskuragarriak izateaz gain, hilabeteko, hiruhilekoko edota urteko bonuak eskainiko ditugu. Horrekin, bezeroak denbora luzeago gurekin egotea lortuko dugu, eta era berean bezeroentzat ere onuragarria izango da. Bestetik, ekintzei dagokionez, askotariko ekintzak egiteko aukera ematen diegunez gain, haiek ekintzak proposatzeko eta beraz hein batean

gure proiektuaren zati bat bilakatzen direnez, entzunak sentituko dira eta erakargarria izango da bezeroentzat gurekin gelditzea, ekintza asko eta desberdinak egiteko aukera ugari izango dutelako.

Ondorioz, hau guztia erabiliz lortuko duguna da, gure helburuak lortzea; hots, bezeroekiko harreman estua, guregana iristeko erraztasuna eta bezeroak gurekiko leialak izatea.